

Ez etsi

TXILLARDEGI



«GEURETAR gaixo batzuk aien billa yun ta arrotzak emen dira! Euskalerriki mendi zelaetan / ageri da morua!».

Francorekin bat egirik Euskal Herria okupatzera zetozen italiarrak, naziak eta mairuak zituen aipu Telesforok: «Askatasun alaiaren aurka gorrotoak bat eginda dauzka».

Ez zekien berak handik 34 urtetara bere gorpuzari gertatuko zitzaiona. Are gutxiago soma zezakeen bere alderdikideek berek gauza berbera egingo zutela ondoko urteetan; behin eta bertiz...

Eta mairuak. Afrikatik ekarri beharrik ez zela izango. 'Mairu' arrotz haien ondorengoak, Lakuan kokatu baitira, ikurrinaz mozorroturik, Osakidetzako bulegoetan, ET-Bko bulegoetan, gure udaletxeetan, gure inguruan.

Telesforok iragarri zuen bezala, «bat eginda dauzka gorrotoak».

Ez 'moro' arrotzarekiko gorrotoak, ez 'doixtar basatiarekiko' herrak. Ez, ez. Saldua ez den abertzalea da gauroko etsai nagusia. 'Burukide-ekiko' etsai bakarra, gu gara.

Zinez: ez zuen Telesforo miretsiak okerrena ikusi!

Okerrena gero etorri da, 'euzkadi-ren' izenaren espainiar inperialismoaren ametsik zoroenak berak ere, abertzaleak jipioitzea eta sarraskitzea Jaurilarizaren bedeinkazioak oro lortzean.

Begirik gabe

RAMON LABAIEN



AHANTZIAK ditugu azken urte parean PSOEren gobernuak ezagutu dituen gora beherakadak. Hainbat izan dira, ari garetia galtzen memoria ere.

Norbaitetik programatuak balira bezala, egoia joan eta eguna etorri eta erakusten zaizkigu politikariren azken ustelkeriak, banka gizonen lapurretak, zenbait gazetariren maltzurkeriak, Barne Ministeritzaren indarkeri eta joko zikinak, epaile honen edo haren zentzu eta sentibiltate hutsuek... Ba dirudi ez dela deus, behar den bezala dabilenik, Espainiako Estatuan. Ba dirudi ere, PSOEren gobernu erasotzeko aitakian, hemen dugun demokrazia edo demokrazia itxura duen hori nahi dela jarri zalantzan. Franco hil eta mirari gisa egun batetik bestera sortu zitzaigun demokrazia. Diktaturaren estruktura oraindiko bizi-bizirik zirela —eta desagertu ote dira zeharo?— hor azaldu zen demokrazia baten konposante nagusiak zituen sistema. Eusko ikuspegi batetik akatsak zituena eta eskasa. 23-F-n gertatutako azaldu zuen bezala, Espainiako jende eta interes zenbaitentzat, kaltegarria eta zirti-zarta apurte behar zen zenbait. Egun hartan erantzunik gabe gelditu ziren galderek, erantzunik gabe jarraitzen dute gaur, kezka bat sortuz, orduan ilunean ibili ziren indar baiiek ez ote diren gaur ere bizirik eta erme. Nolabaik, ahul eta itsu zen demokraziari begiak ematea zuen helburu, gaur horrelako istiluan dabilen Cesid dioten hori. Erakutsiz, gauza bat dela organizazio bat sortzea, eta bestea sortzen den hori kontrolatzea. Berezikki, izaeraz mundu beltz, labain eta zikin batean mugitzen den zenbait deanean.

Gauza da, eta benetan zalantzarria, eskandalu pitzatzeak ahuldua utzi duela demokrazia. Eta Cesid-en porrot eta kredibilitate galtzeak, begirik gabe. Nora goazen hurrengo, horra erantzun garbi bat eskatzen duen galdera.

HEMEROTEKA

BARCELONA ES BONA SI LA BOLSA SONA



GALLEGO & REY / DIARIO 16

• egin

Paktu itsua

Baina barren-barrengo auzia beste hau da, hots, Paktua sinatzeko argudioztat hartu zen arazoa aspaldikoa dela eta horren sustrai politikoak oso sakonak direla, eta orain arte behinik behin sustrai horiek ez ukitzea erosoago gertatu zaiela. Paktuko batzuek honela ezin dela segitu konturatzeta da Mahaiaren gaurko geldiegonaren gauzarik positiboa.

Bide berriak urratzeko posibilitatea sumatzen da. Bide berriak saiatzeko «baimena» behintzat eman zioten elkarri. Kontua da Paktua, euskal politika eta Estatuarekiko gatazka konpontzeko elementu eraginikor zela uste zen bezainbestean, gaingiduta dagoela. Falta den gauza bakarra Pak-

tukoek hori errekonozitu eta begietako lausoa kentzea da.

EDITORIALA

• EL PAIS

Euskal norgehiagoka

Bueren epaileak Lasa eta Zabalarren hilotzei buruz hartutako erabakia okerra izan da. Era berean, neurritz gaineakoa —eta zenbaitetan zerbait txarragoa— izan da Hondarribiko aireportuan eta Tolosako hilerrian esku-

hartu zuten segurtasun indarren jokabidea. Baina okerra litzateke pentsatzea izandako gertaera larriak Buerenek gorpuzkinen errausketari buruz hartutako erabakiaren ondorio direla. Esperientziak erakusten du istilu horiek eta ondorioz ekartzen dituzten triskantzak, enfrentamenduak eta biolentzia, Lasa eta Zabalarren senitariekoei nahi zuten bezala hiletak atzeratzea baimendu izan balute ere gertatuko zirela.

Epaileari egotz dakiok kontuan ez hartzea familia-

ren sentimenduak. Motibak edozein izanda ere, ez da arrazoizkoa epaile batek erabakitzea nola agurto behar dituzten hildakoak senideek, lagunek eta bizilagunek. Bi gazteen asasinatze krudelak pertsona horiengan eragindako samina errespetatzeak beste edozein gaitetik egon beharko zuen. Hori izan zen hutsegitea, eta ez erabakia ustez zuhurgabea edo probokatzaila izatea. ETA nahiz KASen inguruko munduak probokatzen du, ez probokazioa jasaten duenak.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Alkatzetzak

Denok espero genuena gertatu da: istilu galantak izan dira HBk alkatzetzak 'galdu' duen herrietan. Antza denez HBk ez du gustuko gehiengoaren iritzia, 'lapurrak' omen dira beste alderdien kideak erabat zilegiak diren itunak udaletan aplikatu izanagatik. Bide bidez oroitarazi nahi nieke HBkoei zuek ere gauza bera egin duzuela betidanik, beste alderdi batekin itunak izenpetzea hirugarren batek alkatzetzak lor ez dezan, alegia. Ez izan faltsuak gero!

Beste gauzatxo bat aipatu nahi nuke. Odon Elorza Donostiako alkatea inbestidura osoko bilkuran euskaraz hizketan hasi zen unean HBkoak barrez leheritu ziren. Ba, gauza bera egingo dugu guk Pepe Rei espainol erdaldunarekin. Eta gauza bera ere egingo dugu 'Eguintz' egunkaria erdara hutsuan kaleratzen dutenekin. Gora Euskal Herri euskarduna!

Post-data: ziur nago beti bezala baten batek faxista deituko didala. Hala da, faxista izango naiz, baina euskaraduna eta euskaltzalea behintzat.

JUAN LUIS FERNANDEZ GUTIERREZ
Getxo (Bizkaia)

Bahiketa legala

Duela zenbait egun, eta zerbitzu militarra bete nahi ez izateagatik, gure lankidea, Ander Zaldua Martutenekdo espetxera eraman eta bahituta izan da. Epaile jauna, zer nolako bakea da hau? Ander eta ehundaka intsumitu gazte estatu espainoletik sakabanatu eta espetxeratzen dituztenean, hiltzen erakusten duten horietako leku batera ez joategatik. Hori al da delittoa? Guzti honengatik, guk, bere lankideok, berehala kaleratzeko eskatzen dugu. Eta beren bularra dominaz betetzeko guda egiten dutenez, kulturak eta herriak

arrasatzen, dolu eta beldur asko sentitzen dugu, eragin dezaketen kalte guzti horregatik; hala ere, horrelako pentsamoldeak ez ditugunik, bai gure etxeetan, bai gure lagunekin askatasunez eta lasaitasunez uzteko, besterik ez dugu eskatzen. Jakina, Anderren kasuan, dakiena eta gustokoa daukana egiten dezan.

JOSEBA SALA LAKUNZA
JON ARRIZABALAGA LEINENA
Pasaia (Gipuzkoa)

Oharra:

Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 20 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANen zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea.

GAIA JARRITA



Rodolfo Izal

Orain bi urte barneratu zen Lacandona oihanean, txapaldutako indio eta txapiroen aldamenean Samuel Ruiz gotzainarekin buru-belarri lanean. Baina bere kemenean, agintarien aurrean, nonbait ari zen kaltean: gerrillaria omen zela-ta bota dute azkenean, ta Chiapasek bera galdu du gehien behar zuenean.

KOLDO ALDABE

Egunkaria

Batzorde Parkeak: 72504-E / Lege Gordailua: SS 800/90
ISSN 1134-640X

ODJIK IKUSKATUTAKO HEDAPENA
Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordokaria: ISAKI URBIA
Zuzendaria: MARTXEL OLANEN
Gorontze: FERMIN LAZKANO
Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK
Egolitza negusia: Gudarren etorbidea, 2/b / 20140 Andoain
☎ 300 222 / Erretakzio faxa: 300 255 / Publizitateko faxa: 300 707
Araia: San Antonio, 20-1, ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
☎ Publizitate: 13 19 45
Nafarroa: Iruia Monestegi, 45-13, esk. / (Iruia) / ☎ 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77 / ☎ Publizitate: 17 66 86
Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1, ezker. / 48003 Bilbo
☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15 / ☎ Publizitate Orokorra: 410 38 55
Publizitate Lokala: 410 38 46
Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14, 1/501 P. 14
Lapurd / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11